



Kartoizko kaxaren abentura

ARTHUR CONAN DOYLE

1906



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Kartoizko kaxaren abentura

itzulpena:

Guren Coterón Díaz

zuzenketa:

Beñat Olazabal Garate

maketazioa:

Aitor Salinas Betanzos

Nire lagun Sherlock Holmesen adimen-dohain harrigarriak erakusten dituzten kasu adierazgarri batzuk aukeratzerakoan, ahaleginak egin ditut, ahal den neurrian behintzat, sentsazionalismo kutsu txikiena zutenak hautatzen, betiere haren trebetasunak erakusteko abagune egokia eskaintzen bazuten. Zoritxarrez, ordea, ezinezkoa da sentsazionalismoa eta krimena erabat bereiztea; hala, kronikagilea dilema baten aurrean aurkitzen da: kontakizunerako ezinbestekoak diren xehetasunak sakrifikatu, horrela arazoaren inguruko irudi faltsu bat emanez, ala zoriak —eta ez bere gogoak— eskaini dion materiala erabili. Hitzaurre labur honen ondotik, gertaera-kate bitxi bezain ikaragarri bati buruzko nire oharrei ekingo diet.

Abuztuko egun sargori bat zen. Baker Street labe bat zela zirudien, eta kaleaz bestaldeko etxeetako adreilu horien gainean eguzki-argiak egiten zuen erreflexuak min ematen zuen begietan. Zaila zen sinestea horma haiek berak zirenik neguko lainoen artean hain goibel ageri zirenak. Gure pertsianak erdi itxita zeuden, eta Holmes sofan kiribilduta zegoen, goizeko postaz jasotako gutun bat irakurri eta berrirakurtzen. Niri dagokidanez, Indian emandako zerbitzu-aldiak hotza baino hobeto jasaten irakatsi zidan beroa, eta 90 graduko (Fahrenheit) termometro batek ez zidan batere eragozpenik sortzen. Goizeko egunkaria, ordea, ez zen batere interesgarria. Legebiltzarrak saioak amaituak zituen. Jende guztia hiritik kanpo zegoen, eta nik New Forest-eko soilguneak edo Southseako harribildun hondartzak irrikatzen nituen. Nire banku-kontu huts samarrak oporrak atzeratzera behartu ninduen; nire lagunari dagokionez, berriz, ez landa-eremuak ezta itsasoak ere ez zioten txikiena ere erakartzen. Bost milioi pertsonaren erdigune-erdigunean etzanda egotea maite zuen, bere harizpiak luzatuz eta haien artean zabalduz, argitu gabeko krimenen edozein zurrumurru edo susmo txikiri erantzuteko prest. Naturarekiko miresmenak ez zuen lekurik haren dohain ugarien artean, eta bere ingurune-aldaketa bakarra hiriko gaizkilearengan pentsatzeari utzi eta landatar gaizkilearen atzetik abiatzen zenean gertatzen zen.

Holmes elkarrizketa batean aritzeko barneratuegi zegoela ikusita, egunkari antzua alde batera utzi, aulkian atzera bota eta nire baitan gogoetan murgildu nintzen. Bapatean, nire lagunaren ahotsak gogoeta horiek eten zituen.

—Arrazoi duzu, Watson —esan zuen—. Gatazka bat konpontzeko modu zentzugabeenetakoa dirudi, zinez.

—Guztiz zentzugabea! —oihukatu nuen, eta orduan, nire arimaren barreneko pentsamenduaren oihartzuna nola egin zuen bat-batean jabeturik, aulkian zutitu eta zur eta lur geratu nintzen, hari begira.

—Zer da hau, Holmes? —esan nuen ozen—. Hau nire irudimenetik haratago doa.

Nire harridura ikusita, bihotzetik barre egin zuen.

—Gogoratuko duzu —esan zuen—, orain dela denbora pixka bat Poeren istorioetako baten pasarte irakurri nizunean, zeinetan arrazoilari zorrotz batek bere lagunaren pentsamendu isilei jarraitzen baitie, gaia egilearen erakustaldi huts gisa hartzeko joera izan zenuela. Ohitura berbera nuela aipatu nizunean, sinesgaitz agertu zinen.

—Oi, ez!

—Agian ez zure hitzekin, nire Watson maitea, baina bai, ziur aski, zure bekainekin. Beraz, egunkaria bota eta gogoetan hasi zinela ikusi nuenean, asko poztu nintzen horiek irakurtzeko eta, azkenean, haietan murgiltzeko aukera izateagatik, zurekin sintonia betean nengoela frogatzeko.

Baina ni oraindik ez nengoen batere konforme.

—Irakurri zenidan adibide hartan —esan nuen—, arrazoilariak behatzen zuen gizonaren ekintzetatik ateratzen zituen ondorioak. Ondo gogoratzen badut, harri meta batekin estropezu egin zuen, izarrei begiratu zien, eta abar. Baina ni nire aulkian lasai eserita egon naiz; zer arrasto eman ahal izan dizkizut ba?

—Zure buruari bidegabekeria egiten diozu. Aurpegiko keinuak gizakiari bere emozioak adierazteko bide gisa eman zaizkio, eta zureak zerbitzari leialak dira.

—Esan nahi didazu nire pentsamenduen haria nire aurpegieratik irakurri duzula?

—Zure aurpegieratik, eta bereziki zure begietatik. Agian zuk zeuk ez duzu gogoratzen nola hasi zen zure gogoeta?

—Ez, ezin dut.

—Orduan nik esango dizut. Egunkaria bota ondoren —hori izan zen zugan arreta piztu zidan ekintza—, minutu erdi batez aurpegi galduarekin eserita egon zinen.

—Gero, zure begiak Gordon Jeneralaren markoztatu berri duzun erretratuan iltzatu ziren, eta zure aurpegieraren aldaketagatik ikusi nuen pentsamendu-hari bat hasi zela. Baina ez zen oso urrutira joan. Zure begiek bizkor begiratu zioten zure liburuen gainean dagoen Henry Ward Beecherren markorik gabeko erretratuari. Ondoren, paretari begiratu zenion, eta noski, zure asmoa bistakoa zen. Pentsatzen ari zinen erretratu markoztatuko balitz, hutsune hori beteko lukeela eta hango Gordonen irudiarekin bat etorriko litzatekeela.

—Ederki jarraitu didazu! —oihukatu nuen.

—Orain arte ia ezin nintekeen oker ibili. Baina gero zure pentsamenduak Beecherrengana itzuli ziren, eta arretaz begiratu zenuen, haren aurpegikieran bere izaera aztertzen ariko bazina bezala. Ondoren, begiak estutzeari utzi zenion, baina begira jarraitu zenuen, eta zure aurpegia pentsakor ageri zen. Beecherren ibilbideko gertakariak gogoratzen ari zinen. Ondo nekien ezin zenuela hori egin Gerra Zibilaren garaian Iparraldearen alde bere gain hartu zuen misioan pentsatu gabe, gogoan baitut nolako sumindura sutsua adierazi zenuen gure herrikide iskanbilatsuenek nola hartu zuten ikusita. Hain sentimendu sakona piztu zizun horrek, ezen baneakien ezin zenuela Beecherrengan pentsatu horretan ere pentsatu gabe. Une bat geroago zure begiak koadrotik urruntzen ikusi nituenean, zure burua Gerra Zibilera zuzendu zela susmatu nuen, eta zure ezpainak estutu, begiek distira egin eta eskuak ixten zirela ikusi nuenean, erabat ziur nengoen borroka etsi hartan bi aldeek erakutsitako ausardiaz pentsatzen ari zinela zinez. Baina orduan, berriro ere, zure aurpegia goibeldu egin zen; burua astindu zenuen. Tristurari, izuari eta bizitzaren alferrikako xahutzeari buruz gogoetan ari zinen. Zure eskua zure zauri zaharrerantz joan zen, eta irribarre batek dardara egin zuen zure ezpainetan; horrek erakutsi zidan nazioarteko auziak konpontzeko metodo honen alde barregarriak zure gogoan lekua hartu zuela. Puntu honetan, zurekin bat etorri nintzen zentzugabea zela pentsatzean, eta poztu egin nintzen nire dedukzio guztiak zuzenak izan zirela egiaztatzean.

—Guztiz! —esan nuen—. Eta orain, azaldu didazun honetan, aitortzen dut lehen bezain harrituta nagoela.

—Oso azalekoa izan da, nire Watson maitea, ziurtatzen dizut. Ez nintzateke zure pentsamenduetan

sartuko lehengo egunean sinesgaiztasun apur bat erakutsi izan ez bazenu. Baina hementxe daukat, eskuartean, arazo txiki bat, zeina nire pentsamenduen irakurketako saiakera txiki hau baino askoz ere zailagoa izan daitekeen ebazteko. Ikusi al duzu egunkarian Croydon-eko Cross Street-eko Susan Cushing andereari postaz bidalitako pakete baten eduki deigarriari buruzko paragrafo labur bat?

—Ez, ez dut ezer ikusi.

—A! Orduan oharkabean pasatuko zitzaizun. Bota iezadazu berriro. Hemen dago, finantza zutabearen azpian. Beharbada ozen irakurtzeko adinako adeitasuna izango zenuke.

Itzuli zidan egunkaria hartu eta adierazitako paragrafoa irakurri nuen. «Pakete izugarri bat» zuen izenburu gisa.

—Croydon-eko Cross Streeten bizi den Susan Cushing anderea broma astun eta bereziki nazkagarri baten biktima izan da, salbu eta gertakari honi esanahi makabroago bat eransten zaiola frogatzen bada. Atzo arratsaldeko ordu bietan, postariak paper marroian bildutako pakete txiki bat entregatu zion. Barruan kartoizko kaxa bat zegoen, gatz lodiz betea. Hura hustutzean, Cushing anderea ikaratuta geratu zen bi giza belarri aurkitzean, antza denez, moztu berriak. Kaxa aurreko goizean bidali zen Belfast-etik pakete-posta bidez. Ez dago igorleari buruzko inolako zantzurik, eta kontua are misteriotsuagoa da kontuan hartuta Cushing andereak, berrogeita hamar urteko emakume ezkongabeak, bizimodu oso erretiratu izan duela eta hain ezagun edo korrespontsal gutxi dituela, non postaz ezer jasotzea gertaera arraroa baita berarentzat. Duela urte batzuk, ordea, Penge-n bizi zenean, bere etxeko gelak alokatu zizkien medikuntzako hiru ikasle gazteri, eta haiek botatzera behartuta ikusi zuen bere burua, haien zarata eta ohitura gorabeheratsuak zirela eta. Poliziaren ustez, baliteke gazte horiek egitea izugarrikeria hau Cushing anderearen aurka; ezinikusia baitzioten, bera ikaratu nahiko zuten disekzio-geletako aztarna horiek bidaliz. Teoria horri nolabaiteko sinesgarritasuna ematen dio ikasle horietako bat Irlandako iparraldekoa izateak, eta, Cushing anderearen ustez, Belfast-ekoa bertakoa. Bitartean, auzia gogor ikertzen ari dira, eta gure detektibe ofizial argienetako bat den Lestrade jauna da kasuaren arduraduna.

—Hori Daily Chronicle egunkariak dioena —esan zuen Holmesek irakurtzen amaitu nuenean—. Orain gure lagun Lestrade-ren txanda. Gaur goizean ohar bat jaso dut bere aldetik, eta zera dio: "Uste dut kasu hau oso zure estilokoa dela".

—Auzia argitzeko itxaropen osoa dugu, baina zailtasun txiki bat dugu zeri heldu aurkitzeko. Jakina, telegrama bat bidali diogu Belfasteko posta-bulegoari, baina egun hartan pakete ugari entregatu ziren, eta ez daukate pakete zehatz hori identifikatzeko edo igorlea gogoratzeko modurik. Kaxa libra erdiko honeydew tabako-kaxa bat da, eta ez digu inolako laguntzarik ematen. Medikuntzako ikasleen teoriak bideragarriena izaten jarraitzen du niretzat, baina ordu batzuk libre bazenitu, asko poztuko nintzateke zu hemen ikusteaz. Egund osoan etxean edo polizia-etxean egongo naiz. Zer diozu, Watson? Beroari gailendu eta nirekin Croydon-era etortzeko prest, zure kroniketarako kasu bat izateko aukera urrunaren bila?

—Zerbait egiteko irrikaz nengoen.

—Bada, izango duzu zer egin. Jo txirrina morroiei, eta esaiezu zalgurdi bati deitzeko. Berehala nator, etxeko bata aldatu eta puru-ontzia bete bezain laster.

Treanean gindoazela euri-zaparrada bat bota zuen, eta beroa ez zen hirian bezain itogarria Croydon en. Holmesek telegrama bat bidalia zuen aurrez, eta beraz, Lestrade —beti bezain gihartsu, dotore

eta hudo-itxurakoa— geltokian geneukan zain. Bost minutuko osteratxo batek Cross Street-era eramán gintuen, Cushing anderearen bizilekura.

Bi solairuko adreiluzko etxeek osatutako kale oso luzea zen, txukun eta apaina, harri zurituzko mailadiekin eta ateetan esamesetan ari ziren amantaldun emakume talde txikiekin. Bide-erdian, Lestrade gelditu eta ate bat jo zuen. Neskame gazte batek ireki zigun. Cushing anderea aurreko gelan zegoen eserita, eta hara sarrarazi gintuzten. Aurpegi baketsuko emakumea zen, begi handi eta goxoak zituena, eta ile urdindua lokien gainean behera erortzen zitzaion bi aldeetatik. Eskuz brodatutako antimakasar bat zuen altzoan, eta koloretako zetaz betetako saski bat zegoen bere ondoan, taburete baten gainean.

—Estalpean daude, gauza izugarri horiek —esan zuen, Lestrade sartu zenean—. Ea behingoz betirako eramaten dituzuen.

—Hala egingo dut, Cushing anderea. Nire lagun Holmes jaunak zure aurrean ikusi arte baino ez ditut mantendu hemen.

—Zergatik nire aurrean, jauna?

—Galderaren bat egin nahi bazizun ere.

—Zertarako egin niri galderak, horri buruz ezer ez dakidala esaten badizuet?

—Hala da, andrea —esan zuen Holmesek, bere tonu lasaigarrian—. Ez dut zalantzarik kontu honekin nahikoa eta gehiago gogaitu zaituztela dagoeneko.

—Hala da, bai, jauna. Emakume lasaia naiz eta bizimodu erretiratuá daramat. Gauza berria da niretzat nire izena egunkarietan ikustea eta nire etxean polizia topatzea. Ez ditut gauza horiek hemen barruan nahi, Lestrade jauna. Ikusi nahi badituzue, estalpera joan beharko duzue.

Etxe atzean luzatzen zen lorategi estuko estalpe txiki bat zen. Lestrade barrura sartu eta kartoi horiko kaxa bat atera zuen, paper marroi zati batekin eta soka batekin batera. Bide-ertzean banku bat zegoen, eta guztiok bertan eseri ginen, Holmesek Lestradek emandako gauzak banan-banan aztertzen zituen bitartean.

—Soka izugarri interesgarria da —esan zuen, argitara jasoz eta usainduz—. Zer deritzozu soka honi buruz, Lestrade?

—Alkitranatua izan da.

—Zehazki. Alkitranatutako soka zati bat da. Era berean, ez duzu zalantzarik izango Cushing andreak soka artaziekin moztu duela ohartzeko, bi aldeetako higadura bikoitzak erakusten duen bezala. Hau garrantzitsua da.

—Ez diot garrantzirik ikusten —esan zuen Lestradek.

—Garrantzia korapiloa ukitu gabe geratu izanean datza, eta korapilo hori oso berezia izatean.

—Oso txukun lotua dago. Dagoeneko idatzia nuen ohar bat horren harira —esan zuen Lestradek, gogobetez.

—Hori sokari dagokionez, orduan —esan zuen Holmesek, irribarrez—; orain kaxaren bilgarriari ekingo diogu. Paper marroia, kafe-usain nabarmenarekin. Zer, ez zinen ohartu? Uste dut horretaz ezin dela zalantzarik izan. Helbidea letra irregular samarrekin idatzita dago: «S. Cushing anderea, Cross Street, Croydon». Punta lodiko luma batekin egina, ziur aski J motakoa, eta oso kalitate txarreko tintarekin. Croydon hitza hasiera batean i batekin idatzi da, eta gero y bategatik aldatu da. Paketea, beraz, gizon batek igorri zuen —idazkera nabarmen maskulinoa da—, heziketa mugatukoa eta Croydon herria ezagutzen ez zuena. Orain arte, dena ondo! Kaxa libra erdiko honeydew tabako kaxa hori bat da, eta ez du ezer berezirik, ezkerreko beheko izkinan dauden bi erpuru-marka izan ezik. Larruak kontserbatzeko eta merkataritza-helburu baldarretarako erabiltzen den gatz lodi kalitatekoaz beteta dago. Eta horren barruan sartuta daude eduki oso bitxi hauek.

Hitz egiten zuen bitartean, bi belarriak atera zituen, eta ohol bat belaunen gainean jarriz, goitik behera aztertu zituen arretaz; bitartean, Lestrade eta biok, haren bi aldeetan aurrerantz makurtuta, txandaka begiratzen genien erlikia izugarri haiei eta gure lagunaren aurpegi pentsakor eta irrikatsuari. Azkenean, kaxara itzuli zituen berriro, eta tarte batez gogoeta sakonean eserita geratu zen.

—Konturatuko zineten, noski —esan zuen azkenean—, belarriak ez direla pare batekoak.

—Bai, ohartu naiz horretaz. Baina hau disezio-geletako ikasle batzuen broma astun bat balitz, berdin egingo litzaieke bi belarri solte bidaltzea ala pare bat bidaltzea.

—Zehazki. Baina hau ez da broma astun bat.

—Ziur zaude horretaz?

—Zantzu guztiek argi eta garbi kontrakoa diote. Disezio-geletako gorpuei likido kontserbatzailea txertatzen zaie. Belarri hauek ez dute horrelako arrastorik. Gainera, freskoak dira. Tresna kamuts batekin ebaki dituzte, eta hori nekez gertatuko litzateke ikasle batek egin izan balu. Horrez gain, azido karbolikoa edo alkohol purifikatua izango lirateke mediku baten buruari okurrutuko litzaizkiokeen kontserbatzaileak, eta inolaz ere ez gatz lodia. Errepikatzen dizut hemen ez dagoela broma astunik, baizik eta krimen larri bat ikertzen ari garela.

Zirrara lauso batek zeharkatu ninduen nire lagunaren hitzak entzun eta haren aurpegiera gogortu zuen seriotasun latza ikustean. Atariko basati honek atzean ezkutatzen zen izugarrikeria bitxi eta ulertezin baten zantzuak irudikatzen zituela zirudien. Lestrade-k, ordea, burua astindu zuen, erdi konbentzituta baino ez dagoen gizon baten gisa.

—Bromaren teoriaren aurkako eragozpenak daude, dudarik gabe —esan zuen—, baina askoz arrazoi sendoagoak daude bestearen aurka. Badakigu emakume honek bizimodu oso lasaia eta errespetagarria izan duela Penge-n eta hemen azken hogeitun urteotan. Denbora horretan nekez irten da etxetik egun bakar batez ere. Zergatik arraio bidaliko lizkioke, bada, edozein gaizkilek bere erruaren frogak, batez ere kontuan hartuta —aktore bikain bat ez bada behintzat—, guk bezain gutxi ulertzen duela kontu honetaz?

—Horixe da, hain zuzen ere, ebatzi beharreko arazoa —erantzun zuen Holmesek—, eta, nire aldetik, nire arrazoibidea zuzena dela pentsatuz ekingo diot; alegia, hilketa bikoitz bat egin dela suposatuz. Belarri hauetako bat emakume batena da, txikia, forma ederrekoa, eta belarritako batentzat zulatua. Bestea gizon batena da, eguzkiak errea, koloregabetua, eta belarritako batentzat zulatua hori ere. Bi pertsona horiek hilda egongo dira, ziurrenik, bestela oraindik entzungo genuen haien

istorioa. Gaur ostirala da. Paketea ostegun goizean bidali zuten postaz. Tragedia, beraz, asteazkenean edo asteartean gertatu zen, edo lehenago. Bi pertsonak erailak izan badira, nork bidaliko zion, hiltzaileak berak ez bazen, bere lanaren seinale hori Cushing andereari? Ontzat jo dezakegu paketearen igorlea dela bilatzen ari garen gizona. Baina arrazoi sendo bat izan behar du Cushing andereari pakete hau bidaltzeko. Zein arrazoi, orduan? Ekintza egina zela esateko izan behar zuen; edo min emateko, agian. Baina kasu horretan badaki nor den. Badaki, ordea? Zalantza dut. Jakingo balu, zergatik deituko ziokeen poliziari? Belarriak lurperatu zitzakeen, eta inork ez zukeen ezer jakingo. Hori egingo zukeen gaizkilea babestu nahi izan balu. Baina babestu nahi ez badu, haren izena emango luke. Hemen bada askatu beharreko endredo bat.

Ahots ozen eta azkarrean aritu zen hizketan, lorategiko hesiaren gainetik begirada galduta zuela, baina orain zalu jauzi egin zuen zutik jartzeko, eta etxerantz abiatu zen.

—Galdera batzuk egin behar dizkiot Cushing andereari —esan zuen.

—Kasu horretan, hemen utziko zaituztet —esan zuen Lestrade-k—, badut eta beste arazo txiki bat eskuartean. Ez dut uste Cushing anderearengandik ezer gehiago ikas dezakedanik. Polizia-etxean aurkituko nauzue.

—Trenarako bidean agertuko gara hortik —erantzun zuen Holmesek. Une bat geroago, bera eta biok aurreko gelan ginen berriro, non andre asaldaezina oraindik bere antimakasarrarekin lasai lanean ari zen. Guk sartzean, altzoan utzi zuen, eta bere begi urdin jator eta aztertzaileekin begiratu zigun.

—Ziur nago, jauna —esan zuen—, kontu hau akats bat dela, eta paketea inoiz ez zela niri zuzendua egon. Scotland Yardeko jaunari hainbat aldiz esan diot hau, baina nire kontura barre egiteaz besterik ez da arduratu. Munduan ez dut etsairik, nik dakidala; beraz, zergatik egingo lidake inork halako azpijokorik?

—Iritzi berekoa izatera nator, Cushing anderea —esan zuen Holmesek, haren ondoan eseriz—. Uste dut uste baino askoz ere litekeena dela...

Eten bat egin zuen, eta nire ingurura begiratzean harrিতuta geratu nintzen nire laguna andrearen profilari arreata bereziz begira zegoela ikustean. Harridura eta gogobetetasuna igarri zitezkeen, une batez, haren aurpegi irrikatsuan, nahiz eta andrea, isiltasunaren zergatia zein zen jakin asmoz, jiratu zenean, beti bezain asaldaezin ageri zen. Nik neuk ere arretaz begiratu nien haren ile urdinu zapalari, bere txano txukunari, bere urre-koloreko belarritako txikiei, bere aurpegi baketsuari; baina ezin izan nuen nire lagunaren begi-bistako asaldura hura azal zezakeen ezer ikusi.

—Galdera bat edo bi egin nahi...

—Ai, galderez nazkatuta nago! —oihukatu zuen Cushing andereak, pazientzia galduta.

—Bi ahizpa dituzu, nire ustez.

—Nola jakin dezakezu hori?

—Gelan sartu naizen une berean konturatu naiz hiru andrearen erretratu bat duzula tximiniaren erlantzaren gainean; haietako bat zu zara, inolako zalantzarik gabe, eta besteak zure hain antzekoak dira ezen ezin baita ahaidetasunaz dudarik egin.

—Bai, arrazoi osoa duzu. Nire ahizpak dira, Sarah eta Mary.

—Eta hemen, nire ukondoaren ondoan, beste erretratu bat dago, Liverpool-en ateratakoa, zure ahizpa gaztearena, bere uniformeak ikusita itsasontziko zerbitzaria dela dirudien gizon baten konpainian. Ohartu naiz garai hartan ezkongabea zela.

—Oso behatzaile zorrotza zara.

—Hori da nire ogibidea.

—Bada, arrazoi osoa duzu. Baina Browner jaunarekin ezkondu zen egun batzuk geroago. Hego Amerikako linean zegoen argazki hori atera zutenean, baina hain maite zuen nire ahizpa ezen ezin baitzuen jasan hainbeste denboraz bakarrik uztea, eta Liverpool eta Londreseko ontzietan sartu zen.

—A, Conqueror ontzian, agian?

—Ez, May Day ontzian, entzun nuen azkenengo aldi. Jim hona etorri zen behin ni ikustera. Hori edana uzteko zina hautsi aurretik izan zen; baina ondoren, lehorrean zegoenean beti hartzen zuen trago bat, eta edari apur batekin erabat erotzen zen. Ai! Egund txarra izan zen berriro edalontzi bat eskuan hartu zuena. Lehenik niri utzi zidan hitz egiteari, gero Sarah-rekin haserretu zen, eta orain Mary-k idazteari utzi dionez, ez dakigu nola doazkien gauzak.

Bistakoa zen Cushing andereak barruraino sentitzen zuen gai batekin topo egin zuela. Bizimodu bakartia daraman jende gehiena bezala, hasieran lotsatia zen, baina azkenean izugarri berritsu agertu zen. Bere koinatu ontzi-zerbitzariari buruzko xehetasun asko eman zizkigun, eta ondoren, bere lehengo maizterren gaira (medikuntzako ikasleen gaira) desbideratuz, haien bihurrikerien kontakizun luze bat egin zigun, haien izenekin eta euren ospitaleenekin batera. Holmesek arreta handiz entzun zuen dena, tarteka galderaren bat botaz.

—Zure bigarren ahizpari buruz, Sarah-ri buruz —esan zuen—. Harritzen nau, biok emakume ezkongabeak zaretenez gero, etxean elkarrekin ez bizitzeak.

—A! Ez duzu Sarah-ren izaera ezagutzen, bestela ez zinateke batere harrituko. Croydon-era etorri nintzenean saiatu nintzen, eta orain dela bi hilabetera arte iraun genuen, baina orduan banandu egin behar izan genuen. Ez dut nire ahizparen aurkako hitzik esan nahi, baina beti izan da mutissartzailea eta asetzen zaila Sarah hori.

—Liverpool-go ahaideekin haserretu zela diozu.

—Bai, eta garai batean lagun minak ziren. Hara joan zen bizitzera, hain zuzen ere, haietatik gertu egoteko asmoz. Eta orain ez dauka Jim Browner-rentzako hitz samurrik. Hemen egon zen azken sei hilabeteetan, ez zuen bere edateko ohiturez eta moduez besterik hitz egiten. Nire ustez, muturra sartzan harrapatu zuen Jim-ek, eta gogoan zuena argi eta garbi esan zion; horixe izan zen guztiaren hasiera.

—Eskerrik asko, Cushing anderea —esan zuen Holmesek, zutituz eta burua makurtuz—. Zure ahizpa Sarah Wallington-eko New Street-en bizi dela esan duzu, ezta? Agur, eta asko sentitzen dut kasu honekin gogaitu behar izan zaitugula, zeinarekin, zuk diozun bezala, ez daukazun inolako zerikusirik.

Gu irteteen zalgurdi bat pasatzen ari zen, eta Holmesek dei egin zion.

—Noraino dago Wallington? —galdetu zuen.

—Milia bat inguru besterik ez, jauna.

—Oso ondo. Igo zaitez, Watson. Burdina bero dagoela jo behar da. Kasua sinplea izan arren, xehetasun oso adierazgarri bat edo bi izan ditu berekin. Gidari, geratu telegrafo-bulego baten aurrean pasatzean.

Holmesek telegrama labur bat bidali zuen, eta bidaiaren gainerakoan zalgurdian atzera botata egon zen, kapela sudurreraino jaitsita eguzkiak aurpegian eman ez ziezaion. Gure gidaria utzi berri genuen etxearen oso antzekoa zen baten aurrean geratu zen. Nire lagunak itzaroteko agindu zion, eta eskua aldaban zuela, atea ireki eta beltzez jantzitako jaun gazte serio bat agertu zen atarian, kapela oso distiratsu batekin.

—Etxean al dago Sarah Cushing andereñoa? —galdetu zuen Holmesek.

—Sarah Cushing andereñoa oso gaixo dago —esan zuen—. Atzotik izugarrizko garun-sintomak jasaten ari da. Bere mediku arduraduna naizenez, ezin dut inor bera ikustera sartzen uzteko erantzukizuna hartu. Hamar egun barru berriro etortzeko gomendatuko nizueke.

Eskularruak jantzi, atea itxi eta kalean behera abiatu zen.

—Beno, ezin bada, ezin da —esan zuen Holmesek, alai.

—Agian ezingo zizun ezer esan, edo ez zizun gauza handirik esango.

—Ez nuen ezer esatea nahi. Bera ikusi besterik ez nuen nahi. Dena den, uste dut nahi dudan guztia lortu dudala. Eraman gaitzazu hotel txukunen batera, gidari, zerbait bazkaltzeko, eta gero gure lagun Lestraderi bisita egingo diogu polizia-etxean.

Elkarrekin otordu atsegin bat egin genuen, eta, bitartean, Holmesek ez zuen biolinez besterik hitz egin; pozez zorutzen kontatu zidan nola erosi zuen bere Stradivariusa —gutxienez bostehun ginea balio zuena— berrogeita hamabost txelinen truke Tottenham Court Road-eko artekari judu baten dendan. Horrek Paganinirengana eramane zuen, eta ordubetez egon ginen klaret botila baten inguruan, gizon aparta horren hamaika pasadizo kontatzen zizkidan bitartean. Arratsaldea ondo sartuta zegoen eta distira beroa argi leun bihurtua zen gu polizia-etxera iritsi orduko. Lestrade atean zegoen gure zain.

—Telegrama bat zuretzat, Holmes jauna —esan zuen.

—A! Erantzuna da!

Urratu eta ireki egin zuen, begiratu bat bota, eta, zimurtuta, poltsikoan sartu zuen.

—Dena ondo dago —esan zuen.

—Zerbait aurkitu al duzu?

—Dena aurkitu dut!

—Zer! —Lestrade harrিতuta begiratu zion—. Txantxetan ari zara.

—Nire bizitzan ez naiz inoiz serioago egon. Krimen lazgarri bat burutu da, eta uste dut orain bere xehetasun guztiak agerian utzi ditudala.

—Eta gaizkilea?

Holmesek hitz batzuk zirriboratu zituen bere bisita-txarteletako baten atzealdean eta Lestraderi bota zion.

—Hori da —esan zuen—; bihar gauera arte ezingo duzu inor atxilotu, goiz jota. Nahiago nuke nire izena batere ez bazenu aipatuko kasu honekin lotuta; izan ere, konpontzeko zailtasunen bat aurkezten duten krimenekin bakarrik lotzea aukeratzen dut nik. Goazen, Watson.

Geltokira bidean abiatu ginen elkarrekin urrats irmoz, Lestrade Holmesek botatako txartelari aurpegi liluratuaz begira utzita.

—Kasu hau —esan zuen Sherlock Holmesek, gau hartan Baker Street-eko gure geletan puruak erretzen genituen bitartean hizketan ari ginela— Estudio bat eskarlatan eta Lauren seinalea izenburupean kontatu dituzun ikerketetan bezala, ondorioetatik abiatuta eta atzeraka arrazoituz kausekin ematera behartuta egon garen horietakoa da. Gutun bat idatzi diot Lestraderi orain falta zaizkigun xehetasunak eman ditzala eskatuz, eta gizon hori atxilotu ondoren bakarrik lortuko ditu. Hori egiteko berarengan konfiantza osoa izan dezakegu; izan ere, arrazoimenik batere ez badu ere, bulldog bat bezain tematia da behin zer egin behar duen ulertzen duenean, eta hain justu tematasun horrek eraman du Scotland Yard-eko gailurrera.

—Zure kasua ez dago amaituta, orduan? —galdetu nuen.

—Nahiko osatuta dago funtsezkoenean. Badakigu nor den izugarrikeria honen egilea, nahiz eta biktimetako batek oraindik ihes egiten digun. Noski, zeuk ere aterako zenituen zeure ondorioak.

—Pentsatzen dut Jim Browner hori, Liverpoolgo ontzi bateko zerbitzaria, dela susmatzen duzun gizona, ezta?

—Oh! Susmo bat baino askoz gehiago da.

—Eta, hala ere, zantzu oso lausoak besterik ez ditut ikusten nik.

—Alderantziz, nire ustez ezin liteke ezer argiagorik egon. Egin diezaiogun erreposoa urrats nagusiei. Gogoratuko duzunez, burua erabat hutsik genuela ekin genion kasuari, eta hori beti da abantaila bat. Ez genuen inolako teoriarik osatu. Besterik gabe, behatzeko eta gure behaketetatik ondorioak ateratzeko geunden han. Zer ikusi genuen lehenik? Emakume oso baketsu eta errespetagarri bat, inolako sekreturik gabea eta errugabea zirudiena, eta bi ahizpa gazteago zituela erakutsi zidan erretratu bat. Berehala etorri zitzaidan burura kaxa horietako batentzat izan zitekeela. Ideia hori alde batera utzi nuen, gure lasaitasunean ezeztatu edo berrets zitekeen zerbait bezala. Ondoren, lorategira joan ginen, gogoratuko duzunez, eta kaxa hori txikiaren eduki oso bitxia ikusi genuen.

Soka itsasontzietako belagileek erabiltzen duten kalitatekoa zen, eta berehala itsas ufada bat nabaritu ahal izan zen gure ikerketan. Korapiloa marinelen artean ezaguna dena zela ikusi nuenean, paketea portu batean postaz bidali zutela, eta gizonezkoaren belarria belarritako batentzat zulatuta

zegoela ohartu nintzenez —lehorrekoen artean baino askoz ohikoagoa dena marinelen artean—, erabat ziur nengoen tragediaren eragile guztiak gure itsasgizonen klaseen artean aurkitu behar zirela.

Paketearen helbidea aztertzer pasan nintzenez, S. Cushing andereñoari (Miss S. Cushing) zuzendua zegoela ikusi nuen. Jakina, ahizpa zaharrena Cushing andereñoa izango zen, eta bere inisiala "S" bazen ere, besteetako batena ere izan zitekeen. Kasu horretan gure ikerketa oinarri berri batetik abiatu beharko genuke erabat. Hori dela eta, etxean sartu nintzen puntu hori argitzeko asmoz. Cushing andereari akats bat egon zelakoan nengoela ziurtatzeaz nengoen, bat-batean, gogoratuko duzunez, isilik geratu nintzenez. Kontua da harriduraz bete ninduen zerbait ikusi berri nuela, eta aldi berean gure ikerketaren eremua ikaragarri estutu zuela.

Medikua zarenez gero, badakizu, Watson, ez dagoela giza belarria bezainbeste aldatzen den gorputz-atalik. Belarri bakoitza nahiko bereizgarria da arau orokor gisa, eta gainontzekoetatik desberdina da. Iazko Anthropological Journalaldizkarian gaiari buruzko nire bi monografia labur aurkituko dituzu. Kaxako belarriak, beraz, aditu baten begiekin aztertu nituen, eta arreta handiz hartu nuen haien berezitasun anatomikoen oharra. Imajina ezazu nire harridura, orduan, Cushing andereari begiratzean, bere belarria justu aztertu berri nuen emakume-belarriarekin zehatz-mehatz bat zetorrela ohartu nintzenez. Kontua kasualitate hutsetik haratago zihoan. Belarri-hegalaren laburtze bera zuen, goiko gingilaren kurba zabal bera, barruko kartilagoaren tolesdura bera. Funtsean, belarri bera zen.

Noski, berehala ikusi nuen behaketaren garrantzi izugarria. Bistakoa zen biktima odol-ahaide bat zela, eta ziurrenik oso hurbilekoa. Bere familiari buruz hitz egiten hasi nintzaion, eta gogoratuko duzunez, berehala eman zizkigun oso xehetasun baliotsuak.

Lehenik eta behin, bere ahizparen izena Sarah zen, eta bere helbidea bera izan zen duela gutxira arte; beraz, nahiko nabarmena zen akatsa nola gertatu zen eta paketea noiz zentratu zen benetan. Ondoren, hirugarren ahizparekin ezkondua zegoen zerbitzari honen berri izan genuen, eta garai batean Sarah andereñoarekin hain harreman estua izan zuela non Liverpool-era joan baitzen Brownertarrengandik gertu egoteko, baina liskar batek banandu egin zituen gero. Liskar horrek komunikazio guztiak eten zituen hilabete batzuetan zehar, eta beraz, Browner-ek Sarah andereñoari pakete bat bidaltzeko arrazoiren bat izan balu, ez zegoen zalantzarik bere helbide zaharrera bidaliko zukeela.

Eta orain kontua bikain hasi zen berez argitzen. Ontzi-zerbitzari honen existentziaren berri izan genuen, gizon inpultsiboa, pasio bizikoa —gogoan izango duzu postu hobeago bat utzi zuela bere emaztearengandik gertuago egoteko—, eta noizbehinka edanean gogor aritzeko joera zuena. Bagenituen arrazoiak pentsatzeko bere emaztea eraila izan zela, eta gizon bat —seguru asko itsasgizon bat— aldi berean erail zutela. Jeloskortasuna, noski, berehala iradokitzen da krimenaren arrazoi gisa. Eta zergatik bidali beharko litzazkioke ekintzaren frogak hauek Sarah Cushing andereñoari? Seguruenik Liverpoolen bizi izan zen garaian tragedia eragin zuten gertaeretan eskuhartzeren bat izan zuelako. Ohartuko zinen ontzi-linea honek Belfast, Dublin eta Waterford-en egiten duela eskala; beraz, Brownerrek ekintza burutu zuela eta berehala bere lurruntzian, May Day ontzian, ontziratu zela suposatuz gero, Belfast izango zen bere pakete izugarria postaz bidal zezakeen lehen lekua.

—Une honetan, bigarren azalpen bat posible zen, bistan denez, eta oso nekez gerta zitekeela uste banuen ere, aurrera egin aurretik argitzera deliberatua nengoen. Maitale zapuztu batek Browner

jauna eta andrea hil zitzakeen, eta gizonezkoaren belarria senarrarena izan zitekeen. Teoria honen aurka eragozpen handi asko zeuden, baina sinesgarria zen. Beraz, telegrama bat bidali nion Liverpoolgo poliziako nire lagun Algari, Browner andrea etxean ote zegoen eta Browner May Day ontzian abiatua ote zen iker zezan eskatzeko. Gero Wallington-era joan ginen Sarah andereñoa bisitatzera.

Lehenik eta behin, jakin-mina nuen familiaren belarria noraino errepikatu zen berarengan ikusteko. Gero, noski, informazio oso garrantzitsua eman ziezagukeen, baina ez nuen itxaropen handirik horretarako. Bezperan jakingo zuen gaiaren berri, Croydon osoan horixe baitzen hizpide, eta hark bakarrik ulertu ahal izango zuen norentzat zen benetan paketea. Justiziarik laguntzeko prest egon balitz, ziurrenik poliziarekin harremanetan jarrita egongo zatekeen ordurako. Hala ere, argi zegoen gure betebeharra hura ikustea zela, eta halaxe joan ginen. Paketea iritsi zela jakiteak —haren gaixotasuna une hartan hasi baitzen— hainbesteko eragina izan zuen harengan ezen garuneko sukarra eragin baitzion. Beti baino argiago zegoen haren esanahi osoa ulertu zuela, baina era berean argi zegoen denbora batez itxaron beharko genuela haren inolako laguntzarik jasotzeko.

Dena den, benetan ez genuen haren laguntzaren beharrik. Gure erantzunak polizia-etxean zeuden gure zain, bertara bidal zitzan agindu baition Algari. Ezer ezin zitekeen erabakigarriagoa izan. Browner andrearen etxea hiru egun baino gehiagoz egon zen itxita, eta bizilagunen ustez hegoaldera joana zen senideak ikustera. Ontzi-bulegoetan egiaztatu ahal izan zen Browner May Day ontzian abiatu zela, eta kalkulatzeko dut ontzi hori bihar gauean iritsiko dela Tamesisera. Iristerakoan, Lestrade trakets baina erabakigarria izango du zain, eta ez dut dudarik ordurako xehetasun guztiak argituta izango ditugula.

Sherlock Holmesen itxaropenek ez zuten huts egin. Bi egun geroago gutun-azal mardul bat jaso zuen; barruan, detektibearen ohar labur bat eta idazmakinez idatzitako agiri bat zetozen, folioko zenbait orrialde hartzen zituena.

—Lestradek ondo harrapatu du gizon hori —esan zuen Holmesek, begirada niregana jasoz—. Agian interesatuko zaizu zer dioen entzutea.

"Holmes jauna, ene adiskidea: Gure teoriak probatzeko osatu genuen eskemaren arabera..." —«Guk» hori bikaina da, Watson, ezta?— "...atzo arratsaldeko seietan Albert kaira joan nintzen, eta Liverpool, Dublin eta London Steam Packet Company konpainiako May Day lurruntzian igo nintzen. Galdezka aritu ostean, jakin nuen ontzian bazela James Browner izeneko zerbitzari bat, eta bidaian zehar hain modu bitxian jokatu zuela non kapitainak bere kargutik kentzeko erabakia hartu behar izan baitzuen. Haren kamarotera jaistean, kutxa baten gainean eserita aurkitu nuen, burua eskuen artean ezkutatuta, aurrera eta atzera kulunkatzen. Gizon handi eta indartsua da, bizarra ondo moztuta, eta oso beltzarana; garbitegi faltsuaren kasuan lagundu zigun Aldridge haren antzekoa. Nire bisitaren arrazoia entzutean, zutik jarri zen kolpeka, eta nik txilibitua ezpainenetan neukan jada izkinan zeuden bi ibai-poliziarik dei egiteko, baina zirudienez adorea galduta zuen erabat, eta eskuak nahiko otzan luzatu zituen eskuburdinak jar niezazkion. Zeluletara eraman genuen, bai bera eta baita bere kaxa ere, akusatzeko moduko zerbaitek egon zitekeelakoan; baina, marinel gehienek izaten duten labana zorrotz eta handi bat salbu, ez genuen ezer lortu gure ahaleginengatik. Hala ere, ez dugu froga gehiagoren beharrik izango, polizia-etxeko inspektorearen aurrera eraman zutenean, adierazpen bat egiteko baimena eskatu baitzuen, eta gure takigrafoak, noski, berak esan bezalaxe jaso zuen paperera. Idazmakinez idatzitako hiru kopia atera genituen, eta horietako bat gutun honetan eransten dizut. Kasu honek erakutsi du, hasieratik uste izan nuen bezala, oso kontu sinplea dela, baina eskertuta nago nire ikerketan laguntzeagatik. Agur bero bat, adeitasunez: G. LESTRADE."

—Hum! Ikerketa oso sinplea izan zen, bai —esan zuen Holmesek—; baina ez dut uste deitu zigun lehen aldian ikuspuntu hori bera zuenik. Edozein modutan, ikus dezagun zer esan behar duen Jim Brownerrek bere buruaz. Hauxe da haren adierazpena, Shadwellgo polizia-etxean Montgomery inspektorearen aurrean egina, eta hitzez hitz jasota egotearen abantaila du.

"Zer esanik badudan? Bai, badut esateko asko. Barruak erabat hustu behar ditut. Urkatu nazakezue, edo bakean utzi."

Bost axola zait zer egiten duzuen. Egia esan, ez dut begirik bildu hori egin nuenetik, eta uste dut ez dudala berriro egingo betiko loak hartzen nauen arte. Batzuetan haren aurpegia izaten da, baina gehienetan emaztearena ikusten dut. Inoiz ez nago bata edo bestea nire aurrean izan gabe. Hark bekokia zimurtuta eta ilun begiratzen dit, baina berak harridura moduko bat du aurpegian. Bai, arkume zuria, ondo harrituta egongo zen nire aurpegian heriotza irakurtzean, aurretik maitasuna besterik gutxitan erakutsi zion aurpegi horretan bertan.

Baina Sarah-ren errua izan zen, eta gizon suntsitu baten madarikazioak zorigaitza ekar diezaiola eta zainen barruan odola ustel diezaiola! Ez da neure burua zuritu nahi dudalako. Badakit berriro edaten hasi nintzela, nintzen piztiaren moduan. Baina emazteak barkatuko zidan; soka poleari bezain estu itsatsiko zitzaidan emakume hark inoiz gure etxeko atalasea gurutzatu izan ez balu. Izan ere, Sarah Cushing-ek maite ninduen —horixe da kontu honen muina—, maite ninduen, harik eta bere maitasun guztia gorroto pozoitsu bihurtu zen arte, nire emazteak lokatzetan utzitako oinatz bat bere gorputz eta arima osoa baino gehiago preziatzen nuela jakin zuenean.

Guztira hiru ahizpa ziren. Zaharrena emakume zintzo bat besterik ez zen, bigarrena deabrua, eta hirugarrena aingeru bat. Sarah-k hogeita hamahiru urte zituen, eta Mary-k hogeita bederatzik nik ezkontzeko pausoa eman nuenean. Egunak bezain luze eta zoriontsu ginen elkarrekin bizitzen jarri ginenean, eta Liverpool osoan ez zegoen nire Mary baino emakume hoberik. Eta orduan Sarah-ri astebetetz etortzeko eskatu genion, eta astea hilabete bihurtu zen, eta gauza batek bestera eraman gintuen, harik eta gure familiako bat gehiago bihurtu zen arte.

Garai hartan Zinta Urdinekoen elkartekoa nintzen ni [urik ere ez nuen edaten], eta diru apur bat aurrezten ari ginen, eta dena dolar berri bat bezain distiratsu zihoan. Ene Jainkoa, nork pentsatuko zukeen egoera honetara iritsiko ginenik? Nork amestuko zuen halakorik?

Asteburuetan etxean egoten nintzen oso maiz, eta batzuetan ontzia zama hartzeko atzeratzen bazen, astebete osoa izaten nuen neuretzat, eta horrela harreman handia izan nuen nire koinata Sarah-rekin. Emakume garai eta ederra zen, beltzarana, bizkorra eta sutua, burua harrotasunez eramateko moduarekin, eta suharri baten txinparta bezalako distira begietan. Baina Mary txikia han zegoenean ez nuen inoiz berarengan pentsatzen, eta hori zin egiten dut Jainkoaren errukia espero dudan bezalaxe.

Batzuetan iruditzen zitzaidan nirekin bakarrik egotea gustatzen zitzaiola, edo nirekin paseotxo bat ematera joateko xaxatzen ninduela, baina ez nion inoiz garrantzirik eman. Arratsalde batean, ordea, begiak ireki zitzaizkidan. Ontzitik igo nintzen eta emaztea kanpoan zela ikusi nuen, baina Sarah etxean zegoen. "Non dago Mary?", galdetu nuen. "Oh, faktura batzuk ordaintzera joan da". Pazientziarik gabe nengoen eta gelan gora eta beheara hasi nintzen. "Ezin al zara bost minutu zoriontsu izan Mary gabe, Jim?", esan zidan. "Goraipamen txarra da niretzat nire konpainiarekin hain denbora gutxian konformatu ezin izatea". "Dena ondo dago, neska", esan nion esku bat emeki luzatuz, baina berak bere bi eskuen artean hartu zuen nirea istante batean, eta sukarrarekin bazeude

bezala erretzen zuten. Begietara begiratu nion eta dena irakurri nuen haietan. Ez zegoen berak hitz egiteko beharrik, ezta nik ere. Bekokia zimurtu eta eskua aldendu nuen. Orduan, nire ondoan isilik geratu zen pixka bat, eta gero eskua jaso eta sorbaldan kolpetxo bat eman zidan. "Lasai, Jim zaharra!", esan zuen; eta, burlaizkako irribarre moduko batekin, gelatik korrika irten zen.

Bada, garai hartatik Sarah-k bere bihotz eta arima osoz gorrotatu ninduen, eta gorrotatzen ondo dakien emakumea da, gainera. Ergela izan nintzen gurekin bizitzen jarrai zezan utzita —ergel babo bat—, baina ez nion sekula hitzik esan Mary-ri, banekielako atsekabetu egingo zuela. Gauzek lehen bezala jarraitu zuten hein handi batean, baina denbora baten buruan, Mary-rengan bertan aldaketa txiki bat zegoela ohartzen hasi nintzen. Beti izan zen oso fidati eta xaloa, baina orain arraro eta mesfidati bihurtu zen: non egon nintzen eta zer egin nuen jakin nahi zuen, norenak ziren nire gutunak, zer nuen poltsikoetan, eta horrelako milaka txorakeria. Egunez egun, gero eta arraroago eta suminkorrago zegoen, eta ezerezaren inguruko liskar zentzugabeak izaten genituen. Erabat galduta nengoen horrekin guztiarekin. Sarah-k saihestu egiten ninduen orain, baina bera eta Mary banaezinak ziren. Orain ikus dezaket nola ari zen azpijokoan eta nire emaztearen gogoa nire aurka pozoitzen, baina horrelako labezomorro itsua nintzen ni garai hartan, ezen ezin izan nuela ezer ulertu. Orduan nire zina hautsi eta berriro edaten hasi nintzen, baina uste dut ez nuela hori egingo Mary-k betiko moduan jarraitu izan balu. Bazeukan nirekin nazkatuta egoteko arrazoiren bat orain, eta gure arteko amildegia gero eta zabalagoa egiten hasi zen. Eta orduan Alec Fairbairn hori sartu zen tartean, eta gauzak mila aldiz ilunagoak bihurtu ziren.

Sarah ikusteko etorri zen lehenik nire etxera, baina laster gu ikusteko izan zen, trebetasun handiko gizona baitzen, eta noranahi joanda ere lagunak egiten zituen. Tipo ausart eta harrozkatsua zen, dotorea eta ile kizkurduna, mundu erdia ikusia zuena, eta ikusitakoari buruz hitz egiten zekiena. Konpainia ona zen, ez dut ukatuko, eta itsasgizona izateko oso modu adeitsu eta miresgarriak zituen; beraz, uste dut garai batean marinel soil gisa brankan baino denbora gehiago emango zuela txopan ofizial gisa. Hilabetez nire etxean sartu-irtenean ibili zen, eta inoiz ez zitzaidan burutik pasa bere modu gozo eta trikimailutsu haietatik gaitzik etor zitekeenik. Eta orduan, azkenean, zerbaitek susmatu eragin zidan, eta egun hartatik aurrera nire bakea betirako joan zen.

Hutsikeria bat izan zen, gainera. Ezustean sartu nintzen egongelara, eta atetik pasatzean ongietorri argi bat ikusi nuen nire emaztearen aurpegian. Baina nor zen ikusi zuenean, berriro itzali zen, eta etsipen aurpegiarekin eman zuen buelta. Hori nahikoa izan zen niretzat. Ez zegoen Alec Fairbairn besterik bere urratsak nireekin nahasteko modukorik. Une hartan hura ikusi izan banu, hil egingo zukeen, beti izan bainaiz erotuta bezala nire onetik ateratzen naizenean. Maryk deabruaren argia ikusi zuen nire begietan, eta aurrera korrika egin zuen eskuak nire mahukan jarriz. "Ez, Jim, ez!" esan zuen. "Non da Sarah?" galdetu nuen. "Sukaldean", esan zuen. "Sarah", esan nuen sartu nintzenean, "Fairbairn gizon horrek ez du berriro nire etxeko atalasea gurutzatuko." "Zergatik ez?" esan zuen. "Nik agintzen dudalako." "Oh!", esan zuen, "nire lagunak etxe honetarako aski onak ez badira, orduan ni ere ez naiz aski ona honetarako." "Nahi duzuna egin dezakezu", esan nuen, "baina Fairbairnek berriro aurpegia erakusten badu hemen, bere belarrietako bat bidaliko dizut oroigarri gisa." Nire aurpegiak beldurtu zuen, uste dut, ez baitzuen hitz bat bera ere erantzun, eta arratsalde hartan bertan nire etxea utzi zuen.

Beno, orain ez dakit emakume horren aldetik deabrukeria hutsa izan zen, edo nire emaztea nire aurka jar zezakeela pentsatu zuen, gaizki jokatzera bultzatuz. Dena den, bi kale harago etxe bat hartu zuen, eta marinelei logelak alokatzen zizkien. Fairbairnek han hartzen zuen ostatu, eta Mary bere ahizparekin eta harekin tea hartzera joaten zen. Zenbat aldiz joan zen ez dakit, baina egun

batean jarraitu egin nion, eta atea indarrez ireki nuenean Fairbairnek atzeko lorategiko hormaren gainetik ihes egin zuen, sasikume koldarra baitzen. Nire emazteari zin egin nion hil egingo nuela berriro haren konpainian aurkitzen banuen, eta nirekin itzularazi nuen, negar-zotinka eta dardarka, eta paper zati bat bezain zuri. Jada ez zegoen gure artean maitasun arrastorik. Ikusten nuen gorrotatu eta beldur zidala, eta horren pentsamenduak edatera bultzatzen ninduean, orduan mespretxatu ere egiten ninduen.

Beno, Sarah konturatu zen ezin zuela bizimodurik atera Liverpoolen, beraz, ulertu dudanez, bere ahizparekin bizitzera itzuli zen Croydonera, eta etxean gauzek beti bezala jarraitu zuten aurrera. Eta orduan iritsi zen azken aste hau eta miseria eta hondamendi guztia.

Horrela izan zen. May Day ontzian abiatu ginen zazpi eguneko bidaia baterako, baina upel handi bat askatu zen eta gure ontziaren xafla bat kaltetu zuen; beraz, hamabi ordurako portura itzuli behar izan genuen. Ontzia utzi eta etxera joan nintzen, nire emaztearentzat nolako ezustekoa izango zen pentsatuz, eta agian ni hain goiz ikusteaz poztuko zelakoan. Pentsamendu hori neukan buruan nire kalera sartu nintzenean, eta une hartan zalgurdi bat igaro zen nire ondotik, eta han zegoen bera, Fairbairnen ondoan eserita, biak hizketan eta barrez, nirekin batere gogoratu gabe, ni espaloitik haiei begira nengoela.

Esaten dizuet, eta nire hitza ematen dizuet, une hartatik aurrera ez nintzela nire buruaren jabe izan, eta dena amets ilun baten modukoa dela atzera begiratzen dudanean. Azkenaldian gogor edaten aritu nintzen, eta bi gauzek batera burua erabat nahasi zidaten. Orain zerbait daukat buruan taupadaka, zamaketari baten mailua bezala, baina goiz hartan Niagara osoa nire belarrietan txistuka eta burrunbaka nuela zirudien.

Beno, hankei eragin eta zalgurdiaren atzetik korrika hasi nintzen. Haritz-makil astun bat nuen eskuan, eta esaten dizuet gorria ikusi nuela hasieratik; baina korrika nenbilela maltzur ere bihurtu nintzen, eta atzeraxeago gelditu nintzen haiek ikusteko, haiek ni ikusi gabe. Laster geratu ziren tren geltokian. Txarteldegia inguruan jendetza polita zegoen, beraz, nahiko hurbildu nintzaie haiek ni ikusi gabe. New Brighton-erako txartelak hartu zituzten. Nik ere bai, baina hiru bagoi atzerago sartu nintzen. Iritsi ginenean Itsas Pasealekuan barrena oinez hasi ziren, eta ni ehun yarda baino gutxiagora egon nintzen beti. Azkenean txalupa bat alokatu eta arraunean hasi zirela ikusi nuen, oso egun beroa baitzen, eta ziurrenik uretan freskoago egongo zirela pentsatuko zuten.

Nire eskuetan utzi izan balituzte bezala izan zen. Laino pixka bat zegoen, eta ezin zen ehunka yarda batzuetara baino gehiagora ikusi. Neuretzat txalupa bat alokatu, eta atzetik joan nintzaie. Beren ontziaren silueta lausoa ikus nezakeen, baina ia ni bezain azkar zihoazen, eta kostaldetik milia luze batera egongo ziren nik harrapatu nituenerako. Lainoa gure inguru guztian gortina bat bezalakoa zen, eta han ginen hirurok haren erdian. Ene Jainkoa, ahaztuko al ditut inoiz euren aurpegiak haien gainera zihoan ontzian nor zegoen ikusi zutenean? Hark garrasika hasi zen. Berak ero bat bezala birao egin zuen, eta arraun batekin ziztatu ninduen, heriotza ikusiko baitzuen nire begietan. Kolpea saihestu eta makilarekin bat eman nion, burua arrautza bat bezala txikituz. Agian salbatuko nukeen, nire erotasun guztiarekin ere, baina hark besoak lepora bota zizkion, oihuka, eta "Alec" deituz. Berriro jo nuen, eta haren ondoan luze-luze eginda gelditu zen.

Odola dastatu berri zuen piztia basatiaren modukoa nintzen orduan. Sarah han izan balitz, Jaungoikoarren, haiekin elkartuko zen. Labana atera nuen, eta... tira, kito! Nahikoa esan dut. Nolabaiteko poztasun basati bat eman zidan pentsatzeak zer sentituko zuen Sarah-k bere sartu

irtenek eragindakoaren halako seinaleak jasotzean.

"Gero, gorpuak txalupara lotu nituen, ohol bat apurtu, eta han geratu nintzen hondoratu ziren arte. Ondo asko nekien jabeak pentsatuko zuela lainoan norabidea galdu eta itsaso zabalera jitoan joan zirela. Neure burua garbitu, lehorrera itzuli, eta nire ontzira batu nintzen inork ere gertatutakoaren susmo txikienik izan gabe. Gau hartan bertan prestatu nuen Sarah Cushing-entzat paketea, eta hurrengo egunean Belfast-etik bidali nuen.

"Horra hor horren guztiaren egia osoa. Urkatu nazakezue, edo nahi duzuen egin nirekin, baina ezin nauzue zigortu jada jaso dudan zigorra baino gehiago. Ezin ditut begiak itxi bi aurpegi horiek niri begira ikusi gabe... niri begira, nire txalupak lainoa urratu zuenean begiratzen zidaten bezala. Nik azkar hil nituen, baina haiek poliki-poliki ari dira ni hiltzen; eta beste gau bat horrela pasatu behar badut, goizerako erotuta edo hilda egongo naiz. Ez nauzu ziegatxo batean bakarrik sartuko, jauna? Errukiarren, ez ezazu horrelakorik egin, eta zure agonia egunean orain ni tratatzen nauzun bezala trata zaitzatela."

—Zein da honen guztiaren zentzua, Watson? —esan zuen Holmesek, solemneki, papera mahai gainean uztean—. Zein helburu du miseria, indarkeria eta beldurrezko zirkulu honek? Ezinbestean helmugaren baterantz jo behar du, bestela zoriak zuzenduko bailuke gure unibertsoa, eta hori pentsaezina da. Baina zein helmuga? Horra hor aspaldiko arazo iraunkor handia; giza arrazoimena beti bezain urrun dago horri erantzun bat ematetik.